



## AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a "Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna" dela- eta, Tolosako Udalak indarkeria sexistaren adierazpen oro, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturalen oinarritutako botere-harremanetan erroak dituen fenomeno konplexua, irmo gaitzetsi eta bere konpromisoa adierazten du indarkeria matxistarik gabeko gizarte baten eraikuntzan lanean jarraitzeko. Era berean, berriz adierazten dugu geure eginbeharra dela emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzeko behar diren baliabide guztiak hartzea, premiazkoa baita jarduketak planteatzea esku-hartzearen plano guztietan: Prebentzioa, Detekzioa, Sentsibilizazioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko erakunde gisa dugun konpromisoaren barruan, gure eginbeharra da erreparazio-eskubidea sartzea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean. Horretarako, beharrezkoa da indarkeriaren inpaktu eta adierazpide guztiak ikusarazten lagunduko duten baliabide eta bitartekoak edukitzea, eta horrela laguntzea indarkeriari zilegitasuna kentzen gizartean. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera

Tolosako Udalbatzak berretsi egiten du emakumeei indarkeria sexistarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzeko hartutako erabakia, eta konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Agenda politikoan sartzea indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa, guztiz osatu daitezten eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.




2.- Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Protokoloa eta Mahaia lantzen eta indartzen jarraitzea, erakundeen arteko lankidetzak hobetzeko, eta indarkeria hori nozitzen duten emakumeei eta beren familiei babesik handiena eskaintzeko.

3.- Lanean jarraitzea gure udalerrian martxan jartzeko Elkargune zerbitzu bat, leku ezin hobe eta neutral bat, segurtasun berme guztiak eta diziplina anitzeko talde baten laguntza dituen, helburua izanik adingabeei bermatzea beren familiako kideekiko elkarretaratzea, kide horiek krisi-egoeran edo laguntza sozioedukatiboaren beharrez daudelarik.

4.- Aurrera egitea balio-aldaketa batean, indarkeria matxista har dadin gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazgarririk handientzat, eta horretarako Udalaren berdintasun-politikak indartzea, eta bermatzea Berdintasunerako III Planean jasotako neurrien garapen, segimendu eta ebaluazioan behar diren giza- eta diru- baliabideak, elkarrekin lan eginez emakumeen eta feministen kolektiboekin, bai eta gizarte zibila zein herritarrekin ere.

5.- Begirada eta ezagupena zabaltzea indarkeriaren eta beraren kontzeptualizazio eta agerraldi desberdinen gainean, emakumeen aurkako indarkeriaren era desberdinak ikustarazteko (psikikoa, fisikoa, sexuala, mikroindarkeriak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako, eta abar.). Orobat gune fisiko eta sinbolikoetan genero-eskema tradizionalarekin hausten duten gorputzen aurkako indarkeria mota guztien gainean (lesbiana, gay, intersex, transexual, transgenero, eta abarrak).

6.- Azpimarratzea berdintasunak balio duela indarkeria deuseztatzeko, eta sortzea gizon gazte eta helduei zuzendutako gogoetarako esparruak eredu tradizional maskulinoa zalantzan jartzeko eta jarrera eta portaera berdintasunezkoagoak garatzeko, eta sustatzea gizonak indarkeriaren deuseztapenean jarrera eraginkorrago eta konprometituagoaz inplikatzera bultzatzen dituzten balio berriak.



**TOLOSA**  
berdinzalea

7.- Ikastetxeekin batera indartzen jarraitzea, batetik, Hezkidetza Proiektua eta Mahaia, eta, bestetik, *Beldur Barik* eta *Hi Haiz, Hi!* Programak, zeinetan, agresio-mota guztiak prebenitzeko helburuaz, hauek sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea, nesken jabekuntza eta mutilen papera berdintasunezko harremanen alde.

8.- Azkenik, herritarrak gonbidatzea urteko egun guztietan berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera.

Tolosan, 2017ko azaroaren 21ean

Berdintasun Saila



## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 25 DE NOVIEMBRE DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

Con motivo del 25 de Noviembre, "Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres", el Ayuntamiento de Tolosa muestra su más firme repulsa a todas las expresiones de violencia contra las mujeres, fenómeno complejo arraigado en las relaciones de poder basadas en la desigualdad estructural de mujeres y hombres y, manifestamos nuestro compromiso en continuar trabajando en la construcción de una sociedad libre de violencia machista. Asimismo, nos reiteramos en nuestra obligación, de adoptar todos los recursos necesarios en la mejora de los servicios de atención a las víctimas y supervivientes de violencia contra las mujeres, siendo necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: Prevención, Detección, Sensibilización, Atención, Protección, Coordinación, Justicia, y también Reparación.

En el marco de nuestro compromiso institucional con la construcción de una sociedad igualitaria libre de violencia contra las mujeres, debemos asumir el reto de incorporar el derecho a la reparación de las víctimas en la respuesta ante la violencia machista. Para ello se hace necesario contar con los medios y recursos que permitan visibilizar todos los impactos de la violencia y todas sus expresiones contribuyendo a su deslegitimación social. Es necesario dar voz y protagonismo, tanto a las mujeres víctimas de violencia machista como a las asociaciones en las que se agrupan, reconociendo su legitimidad para proponer vías para la reparación.

El pleno del Ayuntamiento de Tolosa se reafirma en su acuerdo para que a las mujeres se les garantice su derecho a vivir libres de violencia machista, y adopta los siguientes compromisos:

- 1.- Incorporar en la agenda política la reflexión y el reconocimiento del derecho a la reparación de las mujeres víctimas de violencia para su completa recuperación y que puedan ejercer su derecho a una vida libre de violencia.

2. Seguir trabajando y fortaleciendo el Protocolo y la Mesa contra la Violencia hacia las Mujeres, para mejorar la coordinación interinstitucional y ofrecer el mejor apoyo a las mujeres que sufren violencia y a sus familias.

3.- Continuar avanzando en la puesta en marcha de un servicio de Punto de Encuentro en nuestro municipio, un espacio idóneo y neutral, con plenas garantías de seguridad y el apoyo de un equipo multidisciplinar, con el fin de dar respuesta y garantizar a las y los menores el encuentro con las personas de su familia que se encuentran en una situación de crisis o requieren de un apoyo socio-educativo.

4.- Avanzar hacia un cambio de valores para que la violencia machista se entienda como la máxima expresión de la desigualdad entre mujeres y hombres, y para ello fortalecer las políticas municipales de igualdad, garantizando los recursos humanos y económicos necesarios en el desarrollo, seguimiento y evaluación de las medidas recogidas en el III Plan de igualdad, en colaboración con colectivos de mujeres y feministas, así como con la sociedad civil y ciudadanía.

5.- Ampliar la mirada y el conocimiento de la violencia, sus diferentes conceptualizaciones y manifestaciones para visibilizar las diferentes formas de violencia contra las mujeres (psíquica, física, sexual, microviolencias, mutilación genital femenina, trata con fines de explotación sexual, etc.), así como todas las formas de violencia en los espacios físicos y simbólicos que se ejercen sobre los cuerpos que rompen con los esquemas de género tradicional (lesbianas, gays, intersex, transexuales, transgénero).

6.- Incidir en el valor de la igualdad para desmontar la violencia y crear espacios de reflexión dirigido a hombres jóvenes y adultos, para cuestionar el modelo tradicional masculino y el desarrollo de actitudes y comportamientos más igualitarios, y promover nuevos valores que inciten a los hombres a replantearse e implicarse en una actitud más activa y comprometida en la erradicación de la violencia.

7.- Seguir reforzando el proyecto y la Mesa de Coeducación con los centros de enseñanza, así como los programas Beldur Barik e Hi Haiz, Hi! en los que se



promueve la sexualidad cimentada en la igualdad, el empoderamiento de las chicas y el papel de los chicos a favor de las relaciones igualitarias, con el fin de detectar y prevenir toda clase de agresiones.

8. Por último, invitar a la ciudadanía a adquirir compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres durante todos los días del año.

Tolosa, 21 de noviembre de 2017

Departamento de Igualdad